

euskara  
euskararen legea  
musika  
malatu

# QEU

2,40 €

2008ko urtarrila 180

kultura  
kafe antzokiak  
katixa agirre

gaia  
gerra zibila:  
antonio loinaz  
teodoro glz de zarate

## IRATI ANDA

eskalatzailea



# CEGASA

## Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



*Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.*

*Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.*



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ

Bezeraentzako arreta telef.: 902 32 22 32 [www.cegasa.com](http://www.cegasa.com)

## HALA BEDI eta GAZTETXEAREN SORRERA

jabi agillo\*

Behin Gasteizek jai berria zen Hala Bedi irrati librea bazuela, orduan eraso eta gobernu-itxierak jasan behar bazituen ere, gune autogestio-natuak izateko beharra sentitzen genuen, gure burua zein gure kezkek ardatz instituzio-naletatik at garatzeko.



Euskal Herriko nahiz Europako bertako testuinguru sozio-politikoak esperientzia hauek aurrera egitea errazten zuen. Esperientzia kontra-kulturalak, okupazioak, mundu alternatiboa, punk-a... Hazten zihoan erakundekeari erantzunez eta eguneroko aldaketa sozialerako bide gisa.

Guztiak (Alemania, Italia, Euskal Herria, Holanda,...), gizarte-aldaketa adierazpenak, egunero zalantzan jartzen zutenak ez bakarrik "status quo"-a, bai zik eta gure subjektibotasun propioak ere.

Gizartearen irakidura, berezkitasun eta freskotasuneko urteak izan ziren haiek, sistemaren aurkako borrokak: erlijioa, familia, lana eta kontsumoaren aurka, jai alternatiboak, prozesio ateoak, psikiatriaren aurkako borrokak, fanzine ugari, irrati libreak, rock taldeak, antzerkia, talde antimilitaristak, antierpresiboak, alderdi eta sindikatuen aurka..., borroka aniztasuna, sistema eta estatua ezbaian jarriaz. Borroka fronte historikoen (langileen mugimendua, bakearen aldekoa, ekologia eta feminismoa) paradigma urratu eta gainditzen zuten borrokak.

Eta hori guztia aktiboki bizi izanda, gure ekintzak eta erabakiak inoren esku utzi gabe, gune ireki, aske eta anitzak sortuz, eredu sozial nagusiaren alternatiba gisa. Gazteriak eta gazterientzat autogestionatutako guneak, sentsibilitate desberdinak elkarren artean bultzekoak, topagune eta trukagune, esparru espekulatibo eta merkantilizatuetatik at.

[\*Gasteizko gizarte mugimenduetako kidea]

Kolaborazio honekin sarrera egiten diogu GEUK GAZTEZULOOrako egin duen 'Gasteiz alternatiboa. Hala Bedi eta Gaztetearen urteurrenak' gaiaren inguruko erreportariari. Elkarlan honi esker, Gaztezuloren urtarileko alea zuentzat opari!

## GAZTEZULO OPARI

### geupertsonaiak

irati anda & patxi usobiaga eskalatazaileak

7-11



### geugaia

gera zibila: antonio loinaz & teodoro glz de zarate

13-17



### kultura

kafe antzokiak & bonberenea  
katixa agirre

23-25  
30-31



### euskara

euskararen legea

26-28

### musika

malatu

32-33

### historia&euskara

apinaizko *baskongadoak*

34-35

### gaztezulon

hala bedi & gaztetea

### txoko berriak

LITERATURA DOSI TXIKITAN

37

GEUSEX

38


### beste

agenda, kaletik, idazleen zutabea, euskaltasunean, araba bixotzian, historia zutabea, errezeta eta umorea

**GEU**

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga eta naroa cuesta | azala: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: inigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: kike fdz. de pinedo, iban zaldia, mikel ayerbe, erlantz urtasun, ana ramirez de okariz (emaize sexologia zentroa), rodolfo villate (diocesan-azpeitako ostaralitza eskola) eta raul bogajo.. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:





**GORETTI**  
**ILEAPAINDEGIA**  
 Hedegile kalea (Korre), 14  
 (San Migeleko pasabidea)  
 Tf: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

**LA RIOJANA**  
 on egin!!! **jatetxea**  
 bokatak,  
 pintxoak, kazuelatxoak  
 Aiztogile kalea (Kutxi), 33  
 tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

**SEX** **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ  
 Tren geltokiaren ondoan  
 Tel: 945 15 42 60  
 DONOSTIA OIARTZUN

**DIBUtec**  
 Paper Beraziak  
 Arte Ederretarako Materiala  
 Ink. Jet original en birziklatuak  
 Bulego Materiala  
 Enkoademazioak  
 Plastifikazioak  
 Kopioak  
 Komiseten Estropaketak

**azkarprint**  
 Inprimeta / Inprimategi  
 Edozein inprimabete mota.

\* PAPERTEGI TEKNIKOA \* Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

**Eramun**  
 Argazki - Estudio

Heradio Fournier, 23  
 (laborategia)  
 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5  
 945 26 19 91

**Bacalao Giraldo**

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Araba Giraldo


ERAMAN ETA JAN  
 "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
 Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza  
 GASTEIZ

**El Clarete**  
 jatetxea

unai eta patri fdr. de retana

zerkabarren kalea, 18  
 gasteiz 945 263 874




**KIDG**  
 APAINDURA


Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

geupertsonaiak

**PATXI USOBIAGA**



**IRATI ANDA**



**GIZA-ARMIARMAK**

## IRATI ANDA. 25 URTE. GASTEIZ

# “Gora begira ez dago mugarik, jarrera hori eskaladarako zein bizitzarako gustatzen zait”



Berau ere harrিতuta dagoela onartu du gasteiztarrak aurten lorturiko emaitzekin. “Sariak lortu ahala motibatuz nihoan. Hauek beti laguntzen dute eta -aitortu du Irati Andak. Bat-batean munduko lehendabizikoen hamarren artean egon nintekeela jakin nuen”. Munduko Txapelketan bosgarren postua lortu du, baita marka bera Munduko Kopan ere; horretaz gain Euskal Herriko Lehiaketan lehen postua eskuratu du eta Espainiakoan irabazi ere. Urte borobila erabat eskalatzailearentzat.

t. josune velez de mendizabal  
a. edorta sanz & argazki press

Bere izena mundu mailan entzun da 2007ko denboraldian eta ondorioz master entzutetsuenetara ere gonbidatua izan da. “Munduko onenak gonbidatzen dituzte hauetan -dio zoriontsu gazteak. Dimakoan eta Arco-koan gainera hirugarren geratu nintzelarik. Ni neu ere harritu egin naiz”.

2006an hasi zen Irati gogotsu aurretik frogatutako kirol honetan. “Garai bat izan nuen lasaia-go ibili nintzena baina duela bi urte entrenatzen hasi nintzen, planifikazioarekin eta helburu zehatzik gabe noraino iritsi nintekeen ikusten”. Uzta ederra jaso eta gero txapelketetarako prestaketetan abiatuko da Irati Anda urte berriaren egitarauaren hasierarekin batera. Hala eta guztiz ere, sorpresaren bat edo beste du gasteiztarrak 2008ko maiatza eta ekainari begira, “harkaitzetan egiteko proiektu batean ari gara pentsatzen” dio, momentuz zehaztasun gehiago eman ezinik.

**“Gora begira ez dago mugarik” dio zure web orriak, bizitzaren aurrean duzun jarreraren adierazle, alegia?**

Bide baten izena da. Esaldi hori irakurtzerakoan energiak betetzen naiz! Gora begira, aurrea begira... zerbait lortu nahi duzunean saiatzen zara horretan eta aurrera segitzen duzu, mugarik ez da existitzen, gai gara muga zailenak gainditzeko. Eta esaldi bat da adorez betetzen nauena. Bizitzaren aurrean jarrera bera izaten saiatzen naiz, ausardia hori izatea beti aurrera egiteko. Beraz, bai, jarrera hori bai eskaladarako bai bizitzarako gustatzen zait.

**Euskal Herriko Txapelketan irabazle eta baita Espainiakoan ere; horretaz gain, Munduko Txapelketan bosgarren postua**

**lortu duzu, eta lehiaketan indartsu ibiltzearekin batera bideak egiten ere marka berria ezarri diozu zure curriculumari. Goian oso jarri diozu muga zure buruari!**

(Barre egiten du) Beno bai... txapelketez gain bideak ere egiten ditut, eta lortu dudana 8c izan da. Gradu hau oso erreferentziazkoa da emakumeentzat, ez baita oso ohikoa, askok 8a egiten dute baina 8c gutxi. Alde horretatik oso emaitza polita izan da. 8a biztaz ere egin izan dut. Hortaz, pozik bai!

**Bi urteren buruan Irati Andak jauzi ederra eman du, eskalada profesioa al duzu honezkero?**

Tira, honetaz bizitzea posible bada, baina baita oso zaila ere. Eskalada oso berria da kirol moduan eta jendeak ez du ezagutzen. Horregatik alpinismo eta mendiarekin nahastu egiten da eta ez da gauza bera. Graduak ere ez dira ondo ulertzen, hortaz, sponsor eta markei zer den ulertzea ere kostatzen zaie eta alde horretatik zailtasunak daude sponsorrek diru askorik ere ez dutelako bertan inbertitzen.

Kirol honetatik apustua egin nahi izanez gero berme bat ere behar duzu, bestela imajinatu lesionatzen zarela edota ez zarela emaitzak egiten ari eta zulora zoazela. Momentu honetan ez naiz profesionala baina diru apur bat ateratzen dut gurasoekin bizitzeko behintzat (barrez dio). Hala ere, uste dut eskalada gero eta ezagunagoa egiten ari dela, emaitzak lortzen ari direla, -horra hor Patxi Usobiaga, bigarren aldiz lortu duela Munduko Txapelketa-, eta jendeak alde horretatik gero eta ezagunagoa du kirol hau.

**Gutxi ezagutzen den kirola den arren eskalada mutilekin parekatzen den horietakoa al da?**

Azken finean gizartearen kontu bat da. Bai

eskaladan, futbolean, musikan edo edozein alorrean emakumearen presentzia beti izan da txikiagoa. Baina nik uste dut emakumea apurka-apurka arlo guztietan sartzen ari dela eta eskaladan ere islatzen ari da.

### **Zein da zure aburuz emakumeek eskaladan erakusten duten maila?**

Euskal Herrian egon badaude eskaladan aritzen diren emakume indartsuak baina nor-gehiagokaetara gutxi aurkezten dira. Lehiaketetara joaten garenok lau bat gara; eta Espainian gauza bera gertatzen da. Baina gero eta gehiago dira motibatuak daudenak.

### **Konpetentzia eskasak bidea errazten al dizu, hortaz?**

Ez pentsa, azken finean horrek ere motibazioa jaistearen eragiten du. Elkarren arteko lehia sano hori dagoenean hobe da. Hala eta guztiz ere, gutxi edo asko, txapelketa beti da txapelketa eta hor egon behar duzu ehuneko ehuna ematen. Hortaz, parte-hartzaile kopuruak ez du txapelketaren muina aldatzen.

### **2007 urtean eginiko aurrerapenak ezin sinetsi zabilta. Lorturikoa baino gehiagorik ba ote?**

Bai, beti lortu ahal da gehiago. Urteik urtera lorpenak handizaleagoak izaten saiatzen zara, bestela motibazioa pixka bat bere horretan geratzen da. Oro har gizakiok horrelakoak gara, beti nahi dugu gehiago. Helburu batzuk jartzen dizkiozu zure buruari eta gehiago nahi duzu. Dena den, kontuz ibili behar zara eta ez zara pasatu behar, oso helburu altua markatu eta lortzen ez baduzu motibazioak behera egin baitezake. Eta horrekin batera errendimendua. Gauzak lasaitasunez egin behar dira, burua ondo jarrita, epe luzera edo ertainera.

### **Eta helburuez ari zarela, zein da 2008rako finkatzen dituzunak?**

Nahi nuke 8c graduko beste bide bat kateatzea, izan ere, ez daukagu denbora askorik harkaitzean eskalatzeko. Bai eta denbora gehiago dedikatzea ere. Txapelketei begira



aurtengo emaitzak hobetu nahi nituzke. 2007an bosgarren egin dut Munduko Txapelketan eta hori errepikatzea kristona litzateke. Hori bera lortzea ez baita lan erraza. Munduko Txapelketan aritzean pentsatu nuen, "ea lehen hamarren artean geratzen naizen" eta aurtun pentsatuko dut, "ea lehendabiziko bosten artean geratzen naizen". (barre egiten du)

### **LEHENA-ORAINA-ETORKIZUNA**

#### **Noiz hasi zinen eskalada egiten eta noiz konturatu zinen ezaugarriak zenituela profesionalizazio bideari ekiteko?**

Toki Eder ikastolan ikasi nuen. Mendi taldean ibiltzen zen Egoitz neba eta esan zidan beraiekin joateko, oso ondo pasatzen zute-la. Noizean behin eskalatzeko genuen, Pizti monitorea azkoitiarra gogoratzen dut, oso mutil jatorra zen eta uste dut bere irakasteko moduak ere eragin zuela. Errodro-moan hasi nintzen eta horrela sartu nintzen mundu honetan.

Ona nintzen edo ez, ez nuen planteatzen, gustatzen zitzaidan eta ondo pasatzen nuen, besterik ez. Lehenbiziko txapelketa 15-16 urterekin egin nuen eta bigarren geratu nintzen, nola da posible?? Flipatuta nen-

goen!! Jubeniletan ere emaitza onak atera nituen eta tira, lau katu direnean gailentzea erraza da.

#### **Zein duzu entrenatzaile?**

Patxi Usobiaga da, bere burua entrenatzen du, eta baita ni ere. Nire gabeziak, sententzioak eta bere laguntzarekin entrenatu behar dudana dakigu; eta modu horretan entrenamendua nire ezaugarrietara egokitzen dugu.

#### **Eta hemendik aurrera, zenbateko bizi-tza geratzen zaizu eskalatzeko?**

Egia esateko, oraindik kirol hau berria da, baita txapelketetan ere. Horregatik adin mugarik ez dagoela uste dut. 16 urterekin parte hartzen duen eskalatzaila badago eta zaharrenak, berriz, 33 ditu. Nik neuk hasieran pentsatzen nuen gazteentzako kirol bilakatuko zela eskalada, gimnasia eritmikoa bezala, baina orain beste modu batez pentsatzen dut.

#### **Eta zure denbora librean zer?**

Sukaldatzea gustatzen zait, gauza berriak dastatzea janariarekin... eta noizean behin ere, nire bertsolari fazetari lotuta, idaztea, bertso eskolan aritu nintzeneko garaiak... ■



## PATXI USOBIAGA. 27 URTE. EIBAR

# “Historia egiten ari naizela uste dut”

### **Bigarrenez Munduko Kopa lortu duzula, zorionak! Horiek benetan hitz handiak dira. Nola bizi izan duzu?**

Aurreko urtearekin konparatuta ezberdina izan da, iaz amets bat bete nuen Munduko Kopa irabazten eta aurten erronka bat bete dut. Erronka moduan ipini bainuen Munduko Kopa irabaztea. Dena den, motibazioa ez da berdina izan. Baina asko poztu naiz irabazi izanaz bigarrenengo urtez jarraian.

### **Hori al zen 2007ko helburua? Horretarako prestatzen ibili al zara, alegia?**

Munduko Koparako beti prestatzen zara, baita Munduko Txapelketarako ere. Bi helburu hauek nituen 2007an. Munduko Txapelketan oso paper ona egin nuen arren, bigarren bukatu nuen, hortaz, betetzeko helburua hor geratu zen. Ezin izan nuen lortu baina azkenean perfektutik nahiko gertu geratu zen.

### **Urtea amaitzeko marka polita egin zenuen abenduaren 11n, 8c+ bistaz, munduan inork lortu ez duen bidea...**

Bai urte polita izan da, gauza politikak sortuz joan dira. Historia moduko bat idazten nabil, dena egin dut eta oso azkar gainera. ‘Bizi euskaraz bidea’, bide gogorra da eta ni oso ondo sentitzen naiz egin ahal izan dudalako.

### **Ibilbide luze honetan, zure ametsak beteta ikusi al dituzu dagoneko edo oraindik badago zerbait eskura nahiko zenukeena?**

Beti dago garapena eta bakoitzaren hobetzea, eta horretan hain justu ere zentratu behar zara batez ere motibazioa mantentzeko. Erronkak egon behar dira beti. Ez

baitut uste zure bizitzako erronka Munduko Kopa behin edo bitan irabaztea izango denik. Izan ere, momentu bakoitzean erronka bat jartzen diozu zure buruari eta azkenean horrek ekarri behar du zure perfektzioa eta hobekuntza. Nirekiko dudan erronkarik handiena hobetzen joatea da, eta gauza asko ditut oraindik hobetzeko, bai teknikoki bai fisikoki. Alde horretatik egunetik egunera gogoz eta motibatuta noa lana eta gauzak ondo egitera.

### **Eta datorren denboraldiari begira zer nahiko zenuke hobetu?**

Hobetu-hobetu gauza asko. Nire maila hobetzea eta Munduko Kopa berriro irabaztea.

### **27 urte dituzu, zenbateko bidea gertzen zaizu gaur egun?**

Adinak zerikusi handia dauka baina nik uste beste zerikusi askorik dugula. Ni egia esan elitean berandu hasi nintzen, nahiz eta goiz hasi nabarmentzen, eta horrek esan nahi du oraindik bizitasun edo energia hori ez dagoela agortuta. Nik uste dut hori azken finean baldintzatuta dagoela norberaren motibazioarekin eta gauzak oso arin badabiltza ba askoz ere lehenago uzten dituzu. Bizitza guztian horrela jarraitzea gustatuko litzaidake ze hau da azken finean gogoko dudana.

### **Dena uzteko zorian izan al zara inoiz?**

Ez, ez, ez, gorabeherak egon izan dira... Laguntzen gaituzten pertsona asko dauden moduan, laguntzen ez dutenak ere egon dira eta batzuetan horrek gogoa ematen du etsitzeko baina bestela ez, sekulan ez.

Patxi Usobiaga eskaladan historia idazten ari den euskalduna dugu. Munduko Kopa bigarrenez irabazi du 2007an eta hau gutxi balitz bigarren postua eskuratu du Munduko Txapelketan lehiatzen diren eskalatzaileenen artean. Bere curriculum atontzeko txintik ez dela geratzen pentsatu eta Eibarkoak urtea amaitzeko ‘Bizi euskaraz’ bidea kateatu zuen, zer eta 8c+ bistaz, egun munduan beste inork hautsi ez duen marka.





#### **LEHENA-ORAINA-ETORKIZUNA**

##### **Zenbat denbora daramazu eskalatzzen? Noiz eta zergatik hasi zinen?**

10 urte nituela hasi nintzen eskalatzzen telebistan ikusi nuelako eta engantxatu nintzelako. Frogatzea lortu nuen, gurasoak konbentzitzea ere eta ordutik ez ditut katuoinak kendu.

##### **Noiz jakin zenuen ona zinela eta noiz erabaki zenuen eskaladaren alde apustu egitea?**

Nire ibilbide osoan zehar gorabeherak egon dira. 14 urterekin despuntatzen nuen bai jubenetan eta abar, baina momentuko gauza da eta ez dakizu zer ekar dezakeen

etorkizunerako, ezta profesionalizaziorako bidean lagunduko duen ere. 2003an hasi nintzen eliteko kirolari moduan eta hortxe izan zen nire lehendabiziko apustua.

##### **Zu Iratiren entrenatzailea zara, eta zurea ordea nor?**

2003an urtean Eusko Jaurlaritzak, eliteko kirolaria nintzen heinean medikuak eta entrenatzaile bat ere jarri zidan, baina ostera gauzak aldatu ziren, eta nahiz eta laguntza eskaintzen jarraitu ba ni hasi nintzen nire burua entrenatzen, baita Iratirena ere.

##### **Lan gogorra ematen du norberak kanpotik bere burua ikustea...**

Ona izango zen gaitasuna norbaitek gaitasuna izanez gero ni entrenatzea, betiere inportantea delako lagundu ahal dizun norbaitekin aritzea. Hala ere, ez dut momentuz ikusten horrelako norbait. Bila banabil eta uste dut laster azalduko dela norbait, bai niri bai Iratiri lagundu diezagukeena. Azken finean nik ere energia asko gastatzen baitut entrenatzaile bezala.

##### **Eta atsedena noizko eta zertarako?**

Orain datorren denboraldia hasi bitartean atsedean pixkat hartuko dut, lagunekin egiteko, Iratirekin disfrutatzeke eta apur bat eskalatzeko ere, gogotsu nabil-eta hau dena egiteko ■

# Urte berriari zer?

**t./a.** ainhoa arriaga & naroa cuesta

- Zer eskatzen diozu urte berriari?
- Ahal izanez gero, zeini eskatuko zenioke zerbait?
- 2007 urteari dagokionez, zerekin geratzen zara?



**Petra Niso, jantzigintza langilea**

- Urte berriari osasuna eskatzen diot, hori baita dugun garrantzitsuena. Maite ditudanak ondo egotea... eta eskatzeagatik, loteria tokatzea ere eskatuko nuke.
- Egia esan, ez dakit zeini eskatu behar zaizkion nik nahiko nituzkeenak.
- Orokorrean ez da urte txarra izan aurtengoa. Hala ere, momentu bat aukeratu behar badut oporretan igarotako egunak dira duda barik. Datorren urtea oporretan igaroko nuke osorik.



**Aintzane Prieto, Haur Hezkuntzako ikaslea**

- Ondo bizitzea eta lana aurkitzea eskatuko nioke. Ikasi dudanarekin zerikusia duen lana aurkitu nahiko nuke, soilik hori.
- Praktiketari nabil momentu honetan. Bertan jarraitzea eskatuko nioke horren inguruko ardura duenari.
- Aurten izandako klasekideekin oso gustura egon naiz, lagun onak egin ditut eta praktiketari ere oso pozik egon naiz.



**Gustavo Adrian, saltzailea**

- Era indibidualean, nagoen bezala bizitzea eskatuko nioke urte berriari. Mundu mailan nahiago dut ezer ez eskatzea ezinezkotzat dudalako.
- Jainkoari.
- Aurten lanean ezagutu ditudanak ezagutzea, oso jende jatorra baita.

## idazle zutabea

### Idazlea irakurketa tailerrean

**t. iban zaldúa**

Irakurketa tailerraren egoitzara doa, poliki, taldearen koordinatzailea. Egun haizetsua eta hotza da gaurkoa eta, kalean aurrera egin ahala, koordinatzaileak minduta sentitzen du gorputza; adinarekin gero eta okerrago daramatza hiriko negu gogorak.



Iritsi da egoitzara. Lehenengoa da, beti bezala, eta aulkiak eta mahaiak atondu ditu; azkenik, bere lekuan eseri da, astun. Une horretan hasi dira hurbiltzen lehenengo irakurleak, taldeka; agur adeitsuak trukatu dituzte, eta koordinatzaileak ere agurtu ditu iritsi berriak, aulkitik altxatu gabe, eskua- ren keinu arin batez. Laster hasiko da saioa.

Gaurko itzulpen bat irakurri behar zuten, Jane Austenen 'Harrotasuna eta aurrejuzkuak', 1813ko nobela ingelesa. Ez daki zergatik, baina jende gutxiago etorri ohi da itzulpenak dauden egunetan, eta horrek kezkatzen du koordinatzailea, euskal itzulpenak gero eta hobeak direlako; irakurleek, ordea, nahiago dituzte, euskaraz irakurtzeko behintzat, euskaldunen lanak. Agian egileekin egoteko aukera izaten dutelako askotan. Edo agian zailagoak iruditzen zaizkielako itzulpenak.

Hasteko ordua da. Koordinatzailea betiko txistea egitera doa, oso higatua dagoena baina honez gero saihestezina zaiona: "Gaur, tamalez, idazleak ezin izan du gurekin egon...", baina hitz horiek esatera doanean konturatu da baietz, hantxe dagoela Jane Austen, kaletik sartu berria dela eta soineko luze urdin bat daramala. Eta ondoan eseri zaio- la, gonbidatutako idazleak egin ohi duten bezala, eta oso urduri jarri da une batez, ez dakielako zer egin, nondik hasi. Eta tailerreko besteengana jiratu nahi izan du, galdetzeko ea hura ez zaien harrigarria iruditzen, baina ezin du, Jane Austenen irribarre ezian baitauka ipinita arreta guztia, eta koordinatzailea ez da konturatzen inguruan dituela tailerreko partaide ia guztiak, deika eta astinduak ematen, eta batek hots egin diola jada anbulantziari, eta laster iritsiko dela medikua, jo dion bihotzekoa egiaztatuko duena hain zuzen ere ■

# 1936ko GERRA EUSKAL HERRIAN





antonio loinaz, bigarrena ezkerrean



Teodoro González de Zarate, en un momento de la liberación de Pamplona a la división, con los prisioneros del Frente de Aragón

TEODORO GONZÁLEZ DE ZARATE

## AHAZTUTAKOEN BIZIPENAK



Orden del Delegado de Obras Públicas de Arava dirigida al Jefe de la Penitencia de Vizcaya solicitando la puesta en libertad de 14 detenidos, 31 de Marzo de 1937. JIMPAI, NANI LARSEN 1961/1971. Libro memoria de la División. Archivo Archivo de la División.



antonio loinaz, lehena eskubian

# ANTONIO LOINAZ, EUSKO GUDAROSTEKO GUDARIA

Azpeitian jaio zen Antonio Loinaz 1916an, baina Zumaiara joan zen 4 urterekin, eta handik Burgosera. Hamaika lekutan egon eta gero, Azpeitira bueltatu zen 1924an, 8 urte zeuzkala. Betiere aitaren ogibideak hala eskatuta. Organista zen Antonioren aita, baita anaia zaharrena ere. Bide bera hartu zuen Antoniok gerra ondoren, kontzentrazio esparru eta gatibu lanetatik itzultzen utzi ziotenean. Eta ebanistatik organista bilakatu bitartean, 1936an Espainiako Gerran Eusko Gudarosteko sarjentu izan zen, 21 urte baino ez zituela.

edurne begiristain  
e. sanz & artxibo & agiritegi probintziala

Bizipenez betetako memoria du Loinazek, eta horietako asko kontatu egin dizkigu. Hona hemen batzuk:

1936ko uztailaren 18an Espainiako Gerra hasi zenean 20 urte zituen Loinazek. EAJkoa zen bera. 1936ko uztailaren 18an, Franco eta beste hainbat Errepublikaren aurka altxatu ziren orduan, eta Espainiako Gerra hasi zen. Jendea mobilizatzen hasi zen, eta Azpeitian Loinaz eta beste batzuk Loiolan elkartzen hasi ziren, Santutegia hutsik zegoelako. Uztailaren 20an kapitan batzuk eta beste zenbait militar joan ziren Donostiatik, baita EAJko zuzendaritzakoak ere, eta Eusko Gudarostea osatu zuten Loiolan. Hortik hasi ziren antolatzen lehenengo konbateak. Parte hartu nahi zuena, boluntario agertzen zen Loiolan eta Eusko Gudarosteko kide egiten zen. Loinaz bera aurkeztu egin zen, azpeitiar askorekin batera. Bere batailoiak Loiola izena hartu zuen. Eusko Gudarostean osatutako lehen batailoia izan zen. Loinazek orduan 20 urte zituen.

Francoren tropak Azpeitian sartu zirenean, 1936ko irailaren 20an, Loiolan zenbait azpei-

tiar eta azkoitiar zeuden preso hartuta. Loiola batailoiko kideek bazekiten haiek denak faxismoaren jarraitzaileak zirela eta 'beste aldera' ez pasatzeko atxilotu zituzten. Azpeititik Bizkaia aldera ihes egin aurretik, askatu egin zituzten Loiolan zeuden preso denak. Azkoitian Juin Jauregian zeuden preso kasuan, Joseba Alberdi azkoitiar gudariak askatu zituela oroitzen du Loinazek. Alberdi kapitain-medikua izan zen ondoren Eusko Gudarostean. Baten batek fusilatu egin nahi zituen Juineko presoak, baina Joseba Alberdik euren alde egin zuen, eta aske eta bizirik uztea lortu zuela azpimarratu du Loinazek. Baina, libre ikusi zirenean, Juineko preso haietako zazpi tropa erreketeei agurra egitera irtetea erabaki zuten, eta bidean CNTko batailoiarekin topo egin zuten. CNTkoek taldeko zazpiak hartu, atxilotu eta Iraetara eraman zituzten. Han fusilatu egin zituzten, Aizarnarako bidean.

Pasadizu hori bereziki mingarria izan zela dio Loinazek: "Atxilotu gintuztenean, gudari azpeitiarrei eta azkoitiarrei leporatu ziguten preso haiek fusilatu izana. Baina gu ez ginen izan, gezurra zen! Eta badaude hori baieztatzeko lekukoak. Gainera, Joseba Alberdi- ren kasuan, oraindik eta gogorragoa da: berak hainbesteri lagundu, hainbeste azkoitiar libre





utzi, fusilamendutik salbatu, eta horietako inork ez zion ondoren berari lagundu. Nahiz eta Joseba ondo portatu zen, gero azkoitiarrak ez ziren ondo portatu harekin”.

Loiola batailoikoak Otxandiora eta Legutianora destinatu zituztela azaldu digu. Berari Legutianora joatea tokatu zitzaion. Bizkaiko frontean izan zuten lehen enfrentamendua 1936ko azaroaren 30ean, eta bertan Joxe Urbieta ‘Mandiolatza’ atzetik tiroa emanda hil zutela gogora dakar Loinazek. “Lehertzen ziren bala horietako bat zen, sarreran zulo txikia eragiten zutenak eta irtereran handia. Azkar-azkar biluztu eta gerrian zauri handia zuela ikusi genuen. Ohatilariak eraman zuten, baina handik ordu gutxira hil egin zen”.

Legutianoko frontean zegoen bitartean, gripea harrapatu eta gaixotu egin zen Loinaz. Baja hartu eta Gernikako behin-behineko ospitalera bidali zuten 1937ko apirilaren 18an. Ozta-ozta salbatu zuen bizi-

### Gaixoentzako sosa

1931tik 1936ra, 80 langile zituen Azpeitiko altzari lantegi batean ebanista ziharduen Antonio Loinazek. Garai horretan ez zegoen ez aseguruak ez antzekorik. Langile bat gaixotuz gero, etxean geratu eta soldatarik ez zuen jasotzen. Horren aurrean, langileei, larunbatero soldata jasotzean, laguntza kutxa bat sortzea bururatu zitzaion. Antonio izendatu zuten arduradun. Aulkian eserita eta papera eta arkatza eskuan, bakoitzak utzitako zentimoak apuntatu eta bildu ostean gaixoaren etxera abiatzen zen. Hau zen orotara gaixoak jasotzen zuen soldata. Gogoan du ekimen hau ez zela nagusien gustukoa.

tza, bonbardaketa hasi baino ordu batean eskas lehenago irten baitzen Gernikatik. Horrela bizi izan zuen 1937ko apirilaren 26 hura.

Sarjentua izatera iritsi zen Loinaz, gerra hasi eta urtebetera. Gogoratzen duenez, oso gaizki pasatu zuen Turtziozeko akademian: “Ikastaroa 25 eguneko izan zen eta niri oso gogorra egin zitzaidan. Erakusteko erabiltzen zuten metodoa sobietarren Armada Gorrikoaren kopia zen. Goizetan, teoria militarreko klaseak, ‘morse’ alfabetoa barne. Arratsaldeetan, berriz, instrukzio militarra. Hainbat alditan, eskolan edo inguruetan ginela, abioi frankisten bisita jaso genuen. Horrelakoetan azkar-azkar klaseak laga eta ahal zen tokian ezkutatzen ginen”.

Handik gutxira, 1937ko abuztuaren 26an, entregatu egin ziren. Batailoien komandantzia horretan egin zuen azkeneko lotura lana Loiola batailoikoekin izan zen, bere batailoia izandakoarekin. Haren azpeitiar lagunak zeuden trintxerara joan behar izan zuen,



euren lekuak utzi eta gainontzeko batailoiekin elkartu behar zutela esateko. "Inoiz ahaztuko ez dudana izan zen, nire lagunei gerra galdu genuela komunikatzea izan zelako; azken batean, errenditu egiten ginela". Ia Bizkaia osoa faxisten esku zegoen, baita Kantabrian (Espainia) Laredoko eta Santoñaoko portuak ere. Militarki gehiago ezin zutelako errenditu ziren.

Hor bukatu zen bataillen garaia berarentzat, baina ez, ordea, gerra bera, espetxealdi eta errepresio urte luzeak hasi baitziren ondoren. Hainbat kontzentrazio esparrutan egon zen urte luzez: Colindres-en (Kantabria), Miranda de Ebron (Burgos, Espainia), Singüenza (Guadalajara, Espainia)...

1943an, azkenean, libre geratu zen, eta berriro ere Azeitira itzuli zen, argal eta gaixorik. Ordutik aurrera ere garai txarrak bizitzea egokitu zitzaion, gerra galdu zutenei lanik ez baitzieten ematen. Aitarekin hasi zen tutu organoak konpontzen Nafarroan. Lanabes hura ere denborarekin utzi, eta urte askoren buruan, 1973an, Gasteizen ireki zuen bere altzari negozioa. Eta bertan bizi da harrezkero. Aspaldi erretirata dago, eta gaur Luis semeak eta Teresa alabak negozioan segitzen dute■

## TEODORO GONZALEZ DE ZARATE, GASTEIZKO ALKATE ERREPUBLIKARRA



Vitoria-Gasteizko Udal Agiritegia: YAN 10x15-29.01

  
**EGUR**

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.  
Golain Industrialdea  
Tl/Fxa: 945 465 921  
Tl. 627 417 747  
info@egur.es  
www.egur.es  
01171 Legutiano (Araba)



**eusko  
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org  
c/ san prudencio 3  
gasteiz-erdialdea



**Gazte  
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org  
c/ vicente manterola z/g  
zaramaga

**Euskeraz Araban BAI**

Beti esan izan da Arabak hasiera-hasieratik eta aho batez egin zuela Armadako matxinoen alde, eta Bigarren Errepublikaren kontra, 1936ko uztailean. Eta Espainiako Mugimendu Nazionalaren aginduei leial jarraitu ziela Gerra Zibileko urteetan. Baina, Gasteizen eta Arabako beste hainbat herritan, ezkerrekoak edo abertzaleak ziren alderdi eta sindikatuetakokide gehienek aurka egin zioten altxamendu militarri. Horregatik, errepresio bortitza nozitu zuten. Ehunka hil zituzten, eta espetxeratu, ondasunik gabe utzi edo erbesteratu beste asko eta asko. Eraildako horietakobat Teodoro Gonzalez de Zarate izan zen.

Expediente procesal de *Teodoro Gonzalez de Zarate y Jaime*

Natural de <i>Vitoria</i>	provincia de <i>Alava</i>	SEÑAS PARTICULARES
vecino de <i>id</i>	provincia de <i>id</i>	Iris (ojos)
hijo de <i>Teodoro</i>	y de <i>Isabel</i>	Cabello
edad <i>35</i>	profesión <i>industrial</i>	Piel
instrucción <i>buena</i>	religión <i>69 R</i>	Cejas
estado <i>casado</i>	hijos <i>tres</i>	Nariz
antecedentes <i>no consta</i>	ingresa por <i>2</i>	Boca
Domiciliado <i>6/Alameda 31. 1.</i>		Barba
		Cara
		Talla

Fórmula dactiloscópica

SEÑAS PARTICULARES

CAUSA						
Registro del Ingresar		FECHAS			VICISITUDES	
NUMERO	NUMERO	Año	JUZGADO	SECRETARIA	DELITO	De la detención a present. De la libertad
			<i>2. 0. P.</i>			<i>18. 2. 1937</i>

FECHAS

Nombre	Día	Mes	Año	VICISITUDES
	<i>11</i>	<i>Febrero</i>	<i>1937</i>	Ingresar en esta prisión, procedente de <i>la Prisión Provincial de Vitoria</i> entregado por <i>juicios de Seguridad</i> en concepto de <i>detenido</i> a disposición de <i>la Delegación de V. Publico</i> con <i>orden</i> de <i>la Prisión Provincial de Vitoria</i> que se une al expediente de <i>causa de Vitoria</i> de <i>la Prisión Provincial de Vitoria</i> .

FECHAS				VICISITUDES
Nombre	Día	Mes	Año	VICISITUDES
	<i>31</i>	<i>Marzo</i>	<i>1937</i>	<i>Se puso en libertad en virtud de orden de la Delegación de Orden Publico que se une al expediente de causa de Vitoria</i>

Emilio Mola altxamendu frankistaren arduraduna Gasteizen zegoen 1937ko martxoan. Helburu argia zuen: Arabako hiriburuko 60 lagun hilik nahi zituen. Hala adierazi zien, gainera, fusilatu behar zituztenen zerrenda egiteko harekin bildu ziren Gasteizko agintari, falangistek eta erreketek.

Martxoaren 30ean izan zen bilera. Hurrengo egunean, gauean, Gasteizko Bakea kalean zegoen espetxera joan ziren guardia zibilak eta falangistek osatutako talde bat, Bruno Ruiz de Apodaka falangistaren gidaritzapean. Espetxeko zuzendari Galo Zabazak banabanaban atera zituen hamasei lagun, Ruiz de

DELEGACION DE ORDEN PUBLICO DE ALAVA

Nº *37*

Sírvase V. poner en libertad a los reclusos a mi disposición, detenidos en esa Prisión que al respaldo se relacionan.

Vitoria 31 de Marzo 1937.

EL DELEGADO DE ORDEN PUBLICO/.

*Jaime Salcedo*

Sr. Jefe de la Prisión de VITORIA

- RELACION QUE SE CITA
- 65 José Luis Abaitua Pérez
  - 9 Victor Alejandro Angulo
  - 3 José Collet Aguilá
  - 3 Jaime Conca Amoros
  - 7 Casimiro Cerrajería Zarranz
  - 16 Francisco Díaz de Arcaña
  - 50 Jesus Estrada Abalos
  - 16 Prisco Hermua Arrizola
  - 58 Eduardo Cobo González
  - 58 José Domingo Elorza San Vicente
  - 64 Francisco Garrido Saez de Ugarte
  - 17 Daniel García de Albeniz
  - 54 Antonio García Bengochea
  - 54 Teodoro González de Zarate
  - 63 Constantino González Santamaría
  - 63 Manuel Hernández Ivañez
- TOTAL - Diez y seis

Apodakaren esku utzi, eta aske utziko zituztela zioen agiria sinatzea behartu zituen. Aske uzteko agiri faltsu hori presoan heriotza epaia izan zen. Bi kamioitan sartu eta Azazetako (Araba) mendatera eraman zituzten. Bertan fusilatu, eta basoan hobi komun batean lurperatu zituzten 1937ko martxoaren 31n.

Hildakoen artean Gasteizko orduko alkate Teodoro Gonzalez de Zarate zegoen, baita sindikalistak eta altxamendu frankistari aurre egin zioten gasteiztarrak ere (sozialistak, errepublikarrak, libertarioak, eta guda-riak). Teodoro Gonzalez de Zarate errepublikar historikoa gaseosa eta izotz fabrika baten jabea zen. Gizon

Arabako Agiritegi Historiko Probintziala: Nanclares, 37-1-79

**GEU**  
 publizitatea:  
 idoge@ya.com

**IZARRA TABERNA - JATETXEA**  
 BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

Idazkariak liburuak katalogoak iragarkiak  
 Irudi korporatiboak argazkiak egutegiak jai  
 jai egitarauak esku liburuak urtekariak fakturak  
 karpetak txartelak afixak diseinua maketazioa  
 inprimatze-lanak ploterrak postalak logotipoak  
 txartelak karpetak aldizkariak liburuak  
 katalogoak iragarkiak irudi korporatiboak  
 argazkiak egutegiak jai egitarauak urtekariak  
 urtekariak fakturak esku liburuak afixak diseinua

**dalvez**

**bai**  
 BURKIN  
 PRODUKTO  
 BURKIN

## gerraeuskalherrian

xumea zela diote orduko kronikek. Lanbidez dendaria, bera izan zen Araban II. Errepublika ezartzearen arduradun nagusia.

1931ko ekainaren 5ean Gasteizko alkate izendatu zuten. Hala ere, bere lanbideko ardurak eta gaixotasun bat zirela medio, Tomas Alfaro Fournierrek ordezkatzeko aukeratu zuten, alkatetzako gaien zuzendaritzan. 1936an, II. Errepublikaren eskutik alkate izendatu zuten berriro. Baina urte bereko maiatzaren 14an kargua utzi egin zuen arrazoi pertsonalengatik.

1937ko otsailaren 18an Gasteizko Probintzia espetxean kartzelatu, eta esan bezala fusilatu egin zuten martxoaren 31n, Azazetan.

Fusilamenduek gasteiztarren artean eragin zuen zirrarak jada aurreikusita ziren zenbait hilketa eten zituen. Hiru aste geroago, baina, apirilaren 20an, beste bi lagun fusilatu zituzten, eta hurrengo egunean beste bost preso atera zituzten Bakea kale-

ko espetxetik eta Urbinan (Araba) fusilatu zituzten. Zerrenda beltzetik tira egin zuten falangistek hilabete luzez, helburu jakin batekin: erreprosioren bitartez frankisten menpeko eremuetan disidentzia akabatzea eta herritarrengan izua eragitea.

Hiru urtera, Teodoro Gonzalez de Zarate eta beste bi fusilatu (Manuel Collel eta Jose Luis Abaitua) Azazetatik atera zituzten. Beste hamahiru lagunengorpuak bertan geratu ziren. Maeztuko Garritotarrak noizean behin lore sorta jartzen zuten hobi komunean, baina bestela inor ez zen ausartzen hortik pasatzera. 1978an Joseba Azkarraga, artean EAJkoa, gorpuak Azazetatik atera eta hilerrian lurperatzeko tramiteak egiten hasi zen. Azazetara joan eta ez omen zuten leku zehatza topatu. Berriz joan behar izan omen zuten, harik eta gorpuak aurkitu zituzten arte. Salbatoreko hilerrian ehortzi zituzten hamahiruak, denak panteoi berean: 132 etxadian, 114 zenbakian. Gonzalez de Zarateren gorpua familiaren panteoian sartu zuten ■



nanclares-bram. prisiones para la república erakusketa



**MENDIA OPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTI OPTICAS**

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33  
Gasteiz





## JUAN KRUZ ALTUNA



Juan Kruz Altuna Olaizola (Zabalia baserria, Nuarbe, Azpeitia). Gaur egun baino gazteago zen 1986-87an, Gasteiza etorri zenean. Dekoratzaileria da eta estudioa dauka Florida kalean. Hozbera da oso, baina “zamarra on batekin eta etxean berogailu ona izanez gero, konpontzen da hotza”. Euskara besterik hitz egiten ez den parajetik etorria, euskararen doinua du gaztelaniaz mintzo denean ere. “Gaztelaniaz hizketan hasi eta berehala konturatzen dira, denak, ni euskalduna naizela. Ez daukat ezer esan beharrik: nire doinuak, azentuak salatzen du nire jatorria. Oso gustura nago horrekin”.

t. m.a. elustondo

### **Eman inori Gasteizera bizitzera etortzeko arrazoia.**

Toki denak dira bizitzeko egokiak baina Gasteiz etorkizun handiko hiria da.

### **Gasteizen lagunak egiteko aholkuak?**

Lasai hartu, ingurua ezagutu, ekintza ezberdinetan sartu... Umeek ere asko laguntzen dute horretan.

### **Zein izango zenuke Gasteiztik alde egiteko arrazoia?**

Arrazoi handiren bat beharko luke, horratik!

### **Gure hirian bizitzeko lekurik egokiena?**

Nik neuk, zenbat eta erdirago eta nahiago dut.

### **Gasteizen ikasi duzun handiena?**

Adinagatik edo, lasai bizitzen. Oso eroso sentitzen naiz hemen.

### **“Hamaika ikusteko jaiak gara!”, bertan ikusitako handiena?**

Hona baino lehen asko ibilita nongoen batean eta bestean eta ezerk ez nau harritu hemen.

### **Non ikasi zenuen gaztelaniaz?**

Ondo inon ez. Ikasketak gaztelaniaz egin nituen garai hartan eta zer edo zer beti ikasten duzu. Baina, praktikatu, gehiena Gasteizen.

### **Bi seme-alaba dituzu: euskaldun bizi ote liteke Gasteizen?**

Euskaldun bizi litekeen? Bai, dudarik gabe.

Hogei urte daramatzat Gasteizen, eta denbora honetan euskarak hemen egin duen aurrerakada ikaragarria da.

### **Zurruta, Parte zaharrean ala San Antonio kalean?**

Gau aldean, Parte Zaharra ez dago gaizki. Goizaldean, San Antonio ere ez!

### **Tranbia bai, tranbia ez?**

Bai, dudarik gabe! Metrorik ez da egingo, baina tranbia autobusa baino gehiago da, eta asko lagunduko du autoak gutxitzen.

### **Obraz josita dago hiri osoa...**

Herria bizirik egoteko nahitaezko dira obrak. Gasteizen, hala ere, toki denetan batera hasten dira eta hankaz gora jartzen dute hiria. Ni, zonaldeka saiatuko nintzateke, eta lan bat bukatutakoan hasi beste batekin.

### **Dekoratzaileria zara: etxe zaharra saldu, ala berritu?**

Nik etxea moldatuko nuke, norberaren beharren eta gustuen arabera. Etxe berriak... denak patroiz batean eginda daude!

### **Futbola, pilota ala saskibaloia?**

Kirol denak gustatzen zaizkit. Zure horietan, pilota, futbola eta saskibaloia, ordena horretan.

### **Jatekorik gustukoena?**

Janari bariatua gustatzen zait. Bi plater baino, nahiago sei, txikiago. Ikaragarri gustatzen zaizkit era horretako jatekuek moderatuenak.

### **Jai egun bateko plan ideala?**

Goizean, mendi buelta, familia eta lagunekin. Hamaiketako ederra bertan egin eta

etxera. Alavesek etxean jokatzeko badu, huraxe ikustera. Txikitoren bat hartu eta etxera. Goxo-goxo afaldu eta ohera.

### **Amorrazten zaituen zerbaite?**

Saiatzen naiz ezerk ez ni amorrazten, lasai hartzen, kasu ez egiten.

### **Ikusi duzun azken filma?**

Las 13 rosas (Hamahiru arrosak)

### **Liburu bat?**

Ez naiz liburu handiak leitu zalea. Azkena, Bernardo Atxagaren ‘Soinujolearen semea’ irakurri nuen. Baina, aukeran, nahiago egunkari eta aldizkariak.

### **Musika?**

Musikarik ez dut jartzen, baina beti ondoan behar dut irratia! Batere uste ez duzula jartzen dizuten kantua gustatzen zait.

### **Artista gustukoren bat?**

Denak ditut gustuko, benetan artista baldin badira. Eta, esaterako, artista asko daude Gasteizen.

### **Non dago zure jaioterria, Nuarbe?**

Azpeitiko auzoa da, Gipuzkoan, nahiz eta Beasain, Beizama eta Azpeitiarena, hiru udalena izan.

### **Zergatik merezikio lioke gasteiztarrari Nuarbe ezagutzea?**

Gasteiz zelaia eta mendi gabea da. Hura, txikia eta dena mendiz inguratuta dago. Otargile herria izana da. Toki polita, erreka erdian, amurrainez eta eskaluz bete. Eta joan deneko hogeita hamar urtean sokatiraren erreferente mundu mailan! Sokatira museo bikaina dugu Nuarben. ■



## GAZTEZULOREN ESKAINTZA BEREZIA

HILABETE HONETAN, GEU ALDIZKARIKO HARPIDEDUN GUZTIEK DOAN JASOKO DUTE GAZTEZULO HILABETEKARIA. GEU ETA GAZTEZULOREN ARTEKO ELKARLANAREN FRUITUA DA, BAINA ESKAINTZA HORI BAINO GEHIAGO DA: NAHI DUTEN GUZTIEK HIRU HILABETEZ GAZTEZULO ETXEAN DOAN JASOTZEKO AUKERA DUTE.

Geu eta Gaztezulo aldizkariak hilabeteak daramatzate elkarlanean, eta elkarlan horrek Geu aldizkariko hartzaile guztientzat eskaintza berezia egitera eraman gaitu. Urtarrilean Geu-ko harpidedun guztiek Gaztezulo ere jasoko dute, gazteentzako aldizkaria hobe ezagutu dezaten. Baina ez hori bakarrik. Nahi duten guztiek datozen hiru hilabeteetan Gaztezulo etxean doan jasotzeko aukera dute.

Gaztezulo etxean doan jasotzea oso erraza da, eta hiru bide daude hori lortzeko. Batetik, ondoko txartela bete eta bidali honako helbidera: Katalina Eleizegi kalea 36, behea, 20009 Donostia. Bestetik, telefonoa nahiago dutenek, 943 457250 dei dezakete, eskaintzarekin bat egiten duzuela esanez eta izen-abizenak eta helbidea emanez. Azkenik, ordenagailu bidez ere egin daiteke: bidali mezua harpidetza@gaztezulo.com helbidera, telefonoz bezala, eskaintza berezia gogo-

ko duzuela esanez eta izen-abizenak eta helbidea emanez. Eskaintza gustuko baldin baduzue urtarri-

lean eta otsaila hasieran jar zaitezketen Gaztezulorekin harremanetan. Ez galdu aukera hau.

### HIRU HILABETEKO HARPIDETZA DOAN



11 ale urte osoan 16€



hilabeteko kioskoan

izena \_\_\_\_\_  
 abizenak \_\_\_\_\_  
 helbidea \_\_\_\_\_  
 herria \_\_\_\_\_  
 telefona \_\_\_\_\_  
 adina \_\_\_\_\_

postakodea \_\_\_\_\_  
 e-posta \_\_\_\_\_

**gaztezulo**  
 HI ETA HIRE MUNDUAK

Katalina Eleizegi 36, behea - 20009 Donostia  
 Tel.: (0034) 943 457250 harpidetza@gaztezulo.com



## GEORGE W. BUSHI OSTIKOKA

Marc McGowan artista ingelesak George W. Bushi ipurdian ostikoa emateko aukera eskaini die Manhattaneko biztanleei. McGowan, hiru egunez, paseoa ibili zen Manhattaneko kaleetan Bushen maskara batekin eta "Ostikoa eman iezadazue" zioen kartela ipurdian zintzilik. Dirudienez, jende askok aprobetxatu zuen McGowanek eskainitako aukera.

## MUSIKAL LOTSAGABEA

Zer-nolako ikuskizun musikala babes dezake urologoen elkarte batek? Txizari buruzko musikak bat, nola ez bada! Horixe egin du AEBtako Omahako Urologoen Elkarteak. *Urinetown* izenburuko musikalak gai sakona du benetan: lehorre batek hondatu egin ditu etxe guztietako txizatiak, eta hura aprobetxatuta, oso prezio garestia duten komun pribatuak jarri ditu enpresa batek. Musikaleko abestirik txalotuen *Txiza egitearen pribilegioa* da.

## HORI DESODORANTE ERAGINKORRA!

Alemaniaiko Buesum herriko gazteentzako aterpean boladatxo bat pasatzen ari ziren emakume batzuek zenbait desodoranteren "eraginkortasunaren" proba grafiko ederra eman digute. Antza, desodoranteetako gasek komuneko sabaia zeharkatu zuten, eta suteen kontrako alarmak jo zezan eragin zuen horrek. Polizia buruak esan duenez, ondorioak ikusita, pasadizoaren protagonistek desodorantearen erabilera murriztea espero dute orain.



## GARRAIORIK AZKARRENA



ibiltzeaz nekatuegi zegoela esan zien gizonak poliziei.

Etxera itzultzeko, ez taxi-rik, ez metrorik, eta ez autobusik. Onena, polizia autoa. Japonian, erosketak egiten ari zen gizon batek polizia auto bat lapurtu zuen etxera bueltatzeko. Poliziek autoa irekita eta motorra martxan utzi zituzten lapurreta bat ikertzeko, eta gure protagonistak ez zuen aukera galdu nahi izan: autoa hartu eta ospa egin zuen. Atxilotu zutenean, oinez

# 835.000

milioi euro inguru bideratu ziren, 2006an, gastu militarretara, Intermon-Oxfam Erakundearen arabera. Gastu militarra gehien handitu zuen herrialdea AEBak dira, eta ondoren, baina nahiko urrun, Erresuma Batua, Frantzia, Txina eta Japonia. Gastu militarra laguntza humanitaria halako hamabost dela dio Intermon-Oxfamek.



# %13,8

da euskararen kale erabilera gazteen artean; hau da, elkarrizketen %13,8an erabiltzen dute euskara. 2005eko datua da, eta 2001eko neurketatik %0,2 baino ez da hazi erabilera. Zenbait tokitan, Bizkaian esaterako, jaitsi egin da. Gainera, leize izugarria dago euskara jakitearen eta hitz egitearen artean: Bizkaiko ikasleen %51,4 D eremuan ikasten ari dira, baina kale erabilera %8 baino ez da.



**ARANBIZKARRA**  
**ZURE**  
**AUTOESKOLA!**  
 Valladolid kalea, 16  
 Tfnoa. 945 28 28 39  
 01002 GASTEIZ

# Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



**PARRAL**  
 TABERNA  
 Egurditan, asteleneratik ostiralera  
**JANTOKI**  
**BEGETARIANOA**  
 SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4  
 01001 - GASTEIZ  
 TEL. 945 27 68 33

## ZURE HARATEGIAK



**XABIER AIZPEOLEA**  
 harategia  
 Florida Azoka 2 eta 3  
 Tl. 945 13 24 48  
 Abastos Azoka 2 eta 3  
 Tl. 945 26 78 97

**Jose Luis GARMENDIA**  
 Harategia-urdaitegia  
 Andaluzia kalea 13  
 Tl. 945 28 79 42  
 GASTEIZ

*gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak*

Obren egite eta zuzentzea

**ALTUNA** Estudioa  
 "Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
 Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa  
 Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
 Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobile: 639 81 51 30

**ARTEPAN**  
 aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua  
 norbanako eta enpresen eskura  
 Jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88  
 boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88  
 vitoria-gasteiz - www.artepan.com

**UZTINTZA**  
**KERAMIKA TAILERRA**  
**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**  
 HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
 Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



# ERROTA

## HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390  
 01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar · restaurante · albéniz



Errege atea, 9 · GASTEIZ  
 Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK  
 MOLDURAK LAMINAK

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

Confeciones *Pinedo*  
 Jantziak

San Antonio, 11 · Tl. 945 23 39 90  
 H. Fournier, 15 · Tl. 945 15 53 39

**HEGOALDE**  
 Euskaltegia  
 Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea  
 Tfnoa 945 28 41 96  
 01003 GASTEIZ

**Udaberria**  
 euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza


Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65  
 Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

Euskadik behar zaitu



# KAFE ANTZOKIAK | BONBERENEA

## EUSKARA ABIAPUNTU ETA JOMUGA



uhagon kulturgunea (markina-xemein)



Bilboko Kafe Antzokia dugu aitzindari. Baina, gaur egun ezin esku bateko atzamarrekin zenbatu Euskal Herrian euskara sustatu eta euskaldunon topagune izateko sortu diren kulturgunek. Halaber, aurten Tolosako Bonbereneak 10. urteurrena ospatzen du. Hortaz, etxe okupatu honetan bizi izandako komediak eta tragediak biltzen dituen liburua kaleratu dute.

San Esteban, 16 20400 Tolosa - Gipuzkoa - Euskal Herria  
Tel. 943 65 28 81 - info@bonberenea.com - www.bonberenea.com

**t. naroa cuesta**

**Zenbat gara? Gero eta gehiago**

Zenbat Gara elkarte Bilbon sortu zen 1990eko hamarkadan Abando auzoan. Bilbo hirian bizi zen euskal komunitatea sendotzeko asmoarekin. Milaka erdaldunen artean gutxi ziren euskaldun bilbotarrak, hala ere, lortu dute erreferentzia taldea izatea. Mota guztietako ekintzak antolatu dituzte urteetan zehar: tailerrak, kontzertuak, dantzak... Euskararen unibertso txikia sortu da Bilbon, kosmos erdaldun baten baitan.

Euskararen egoera berean dauden beste hainbat hizkuntzekiko sentiberatasuna adierazi du elkarte honek bere sorreratik. Horregatik, munduko beste hizkuntza gutxituen eta herri txikien berri ematen ahalegin du da.

[zenbatgara.org](http://zenbatgara.org)



**Gasteizko Kafe Antzokia, noizko?**

Gasteizek bizi duen euskalduntze prozesuak aurrera darrai. Euskararen presentzia gero eta nabariagoa da kalean, hala ere, euskaldun askoren ustetan ez da lan samurra Arabako hiriburuan euskaraz bizitzea.

Euskara maite dutenak asko dira, euskara dakitenak ere; aldiz, euskaraz eguneroko bizitzan era normalizatuan egiten dutenen kopurua nabarmen murriztu egiten da. Jakin badakigu gurean euskarak bultzada behar duela entzungai izateko. Kafe Antzokia izan daiteke bide luze honen hurrengo urratsa.



**Bilboko Kafe Antzokia, gidari**

Baina, zer da Kafe Antzokia? Kulturgunea da. Topagunea da. Erreferentea da. Euskaraz bizi nahi dugunontzat elkargune eta euskarara hurbildu nahi dutenentzat erreferente bilakatu den kulturgunea da. Dena dela, areto hauen eskaintza ez da euskal ekoizpenetara baino ez mugatzen. Munduko jende, kultura, estilo eta sentsibilitateak ikusi, entzun, dastatzeko... abagunea egon ohi baita.

Bilboko Kafe Antzokia izan da hasieratik Zenbat Gara elkartearen egoitza nagusia. Bere egunean Abandoko San Bizente elizaren zinema izandako lokala hain zuzen ere. Egun kultur erreferentzia bilakatu da Euskal Herri osoan. Kontzertuak, jardunaldiak, antzezlanak, hitzaldiak... ez dira falta Bilboko Kafe Antzokiaren asteroko egitarauan.

Arrakastatsua benetan egitasmoa. Hiriaren harre-  
ra ona ikusirik, proiektua zabaltzeari ekin zioten.

[kafeantzokia.com](http://kafeantzokia.com)

**Ondarroako Kafe Antzokia, herriko plaza berria**

Giro euskaldunetan ere beharrezkoak dira euskal topaguneak. Ideia honekin abiarazi zuen Ondarroako Kafe Antzokia Zenbat Gara elkarteak 2001eko apirilean. Herri euskalduna dugu Ondarroa, hala ere, egungo bizitzak hartzen duen abiadan komunitatea trinkotzera bideratutako ekintzak antolatzeko guneak beharrezkoak dira. Herriko "plaza"ren garrantzia galtzen ari den honetan, Ondarroako Kafe Antzokiak bete nahi izan du bilgune horren lekua. Herritarrak dira bertan protagonista nagusiak. Adin eta pentsamendu guztietako herritarrak.

[kafeantzokia.com](http://kafeantzokia.com)



**Plateruena Kafe Antzokia, auzolanaren emaitza**

Hamazazpi urte joan dira jada Berbaro elkarte sortu zenetik. Hots, Durangon euskaraz bizi eta euskara bultzatzen dutenen bilgunea. Plateruena Kafe Antzokia Berbaro euskara elkarteak sortutako musika areto eta kulturgunea da. 2004an argia ikusi zuen egitasmoa Durangoko Landako guneko Hiltegi Zaharrea kokatuta dago. Durangaldean euskalgintzaren erreferentzia den gune honetan askotariko ekintzak eramaten dira aurrera. Kultur eta aisialdi ekintzak bultzatzeaz gain sortzaileei laguntzeko jaio den proiektua da Plateruena. Elkarlana da bizi-gune honen funtsa. Berbaro elkarteak kudeatzen



badu ere, herri-elkarte eta taldeekin elkarlanean aritzen da. Auzolana da elkar-gune honen oinarria, izan ere, gaur egun 870 bazkidek sostengatzen dute.

[plateruena.net](http://plateruena.net)



### Espaloia: Kultura era duinean

Elgetako Goibeko kultura elkartearen helbururik behinena kultur ekitaldiak era duinean eskaintzea da. Horregatik sortu zuten 2004ko ekainean Espaloia Kafe Antzokia.

Debabarrena, Debagoienara, Bizkaia zein Euskal Herri osora euren eskaintza hedatzeko apustua egin zuten horrela. Kultura da helburu nagusia, hala ere, 70 lagunentzako jantokiak aukera asko eskaintzen ditu. Elgeta herri txikia da, nolana ere, halako herriek badute kulturaz era egokian gozatzeko eskubidea.

[espaloia.com](http://espaloia.com)



UHAGON kulturgunea

### Uhagon Kulturgunea: herri ekimena

Gaur egun Uhagon denaren ideia 1999 urte aldera hasi zen mamitzen. Uhagon proiektu kulturala sortzeko aurrera eramandako prozesuan Markina-Xemeingo herritarren parte-hartzeak berebiziko garrantzia izan du. Herrian dauden talde, elkarte eta norbanakoen arteko harremana sustatzearan aldeko ekimena da Uhagon. 2005eko urrian inauguratutako egitasmoaren kultur programazioa Udalak hornitzen du diruz eta koordinazioa eta kudeaketa Uhagon Kultur Elkartearen esku geratzen da.

[uhagon.com](http://uhagon.com)

### Doka: Donostiako Kafe Antzokia

Donostiak aurrein inauguratu du Kafe Antzokia. Euskara abiaburu eta xede duen egitasmo hau maiatzaren 11n jarri zen abian. Antiguako Errege Zainean kokatuta egoteak bere garrantzia izango du. Izan ere, auzoan erein eta Donostian zehar hedatutako hazia da Doka. Aurretik sortutako Kafe Antzokietan bezala, askotariko programazioa atontzen da bertan, ostalaritza eskaintza atzean utzi gabe. Helburu eta espiritu antzekoak: euskara bultzatu eta euskaldunen elkar-gune izan; munduko edozein hizkuntza eta kulturari atek irekita izango dituelarik.

[doka-antzokia.com](http://doka-antzokia.com)



### Amurrio, Arabako lehena

Atek ireki berri ditu Arabako lehenengo Kafe Antzokiak. Amurrioko Alanbika taberna zaharra eraberritu dute euskarak leku propioa izan dezan. Alanbika Kafe Antzokia (Dionisio Aldama kalean) azaroaren 15ean inauguratu zuten Pou anaien '7 kontinente, 7 paretak' ikuskizunarekin. Euskararen erabilera sustatzeko sortu den egitasmo honen funtzionamendua eta programazioa Amurrioko Udalaren esku geratzen da. Euskal Herriko gainerako Kafe Antzokien arima bera badu ere, herriak dituen ezaugarrietara egokitzen den kulturgunea da hau.



### Bonberenea, 10 urte bizirik

1997 urtean Bonberenearen historia hasi zen idazten. Euren lehenengo egoitza Tolosako Suhiltzaileen etxea izan zen, hortik datorkio izena. Baina, egun gutxiren buruan kanporatuak izan ziren eraikin horretatik. Amets egiteko gogoa, grina, kemena... sobera zuten gazte horiek. Izena ere jada aukeratu, beraz, eraikina soilik falta zuten. Sanesteban auzoko eraikina 1999an okupatu zuten, hots, egungo Bonberenea.



Abenduaren 4an argitaratu dute 'Bonberenea 10 urte bizirik' liburua. Hamarkada honetan Bonberenearen inguruan bildu diren gazte eta ez hain gazteen bizipenak eta bizi-pozak ezagutzeko proposamena eginez. Halaber, Tolosako elkargune honetan burutu ekintza eta ekitaldien bilduma grafikoa biltzen da kaleratu berri den liburu honetan.

### 'Bonberenea ekintzak'

Etxe magiko honetan sortu, bildu, aurkeztu, gozatu... direnak bildu eta aurrera eramaten dituen proiektua da. Aitzitik, bertan antolatzen diren ekintzak deskribatzeko ezin ezaugarri komunak erabili. Ugariak eta anitzak dira: kontzertuak, makrobiotika ikastaroak, skate txapelketa... 2002 urtean grabazio estudioa martxan jarri eta jadanik 50 disko inguru grabatu dira bertan. Halaber, INFObonberenea deritzon urtekarria eta txarangaren kantuen liburua sortu, argitaratu eta banatu egin du 'Bonberenea Ekintzak' programak. Arraunlari eta futbol taldea izateaz gain, eskalada, mahai-tenis txapelketa edota graffiti erakustaldiak ere antolatu ohi dituzte.

[bonberenea.com](http://bonberenea.com)

## EUSKARAREN LEGEAK 25 URTE

1982. urteko azaroaren 24an Eusko Legebiltzarrak Euskararen Erabilerarako eta Normalizaziorako Legea onartu zuen. EAJko eta Euskadiko Ezkerreko (EE) kideek ezarri zituzten legearen oinarriak, eta ostean Alianza Popular (AP) ez gainerako taldeek babesa eman zioten legeari Eusko Legebiltzarrean. Aurten, 25 urte bete dira Euskararen Erabilerarako eta Normalizaziorako legea onartu zenetik.

**t. edurne begiristain**  
**a. artxibo**

Legeak garai hartan lortutako adostasuna zabala izan zen. Adostasun horren erakusgarri da orduko Eusko Jaurlaritzan ziren EAJk eta EEk osorik adostu zutela legea, eta sozialistekin edukien %60 eta %70 hitzartu zutela. Adostasun hori erdiestea ez zen samurra izan, eta legeak tramitazio luzea izan zuten Legebiltzarrean, onartua izan arte. Hezkuntza eta Kultura sailek aurkeztu zuten lege proposamena, eta alderdiek zuzenketak egin zizkieten. APK legea gobernuari itzultzeko eskatzeko osoko zuzenketa aurkeztu zuen alderdi bakarra izan zen. Zuzenketak jaso ondotik, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak lan taldea osatu zuen, legea prestatzeko. Honako kideek osatu zuten batzorde txostengilea: Alberto Ansola (EAJ), Jose Luis Lizundia (EE), Joaquin Aginaga (UCD), Jose Antonio Maturana (PSE) eta Juan Infante (EPK).

Kontuan hartu behar da legea onartu zen garaian Herri Batasuneko legebiltzarkideek ez zutela eztabaidetan parte hartzen, eta beraz, ez zutela legea bozkatu. Hala ere, legegarekiko kritiko agertu ziren. HBrentzat euskarak hizkuntz nazionala izan behar zuten eta bi belaunaldiko epean Euskal Herria euskaldunduta behar zuten, KAS alternatibak jasotzen zuen moduan. Legea, baina, helburu horretatik urruti zegoela zioen HBk, eta elebitasunaren kontzeptua inposatzen zela salatu zuten.

Legea aurrerapen handia izan zen zalan-tzarik gabe, euskarari, gaztelaniarekin batera, ofizialtasuna aitortu eta legezko babesa eman baitzion. Aldaketa onuragarrien artean aipatu daitezke euskararen estandarizazioa, irakaskuntzaren euskalduntzean egindako urratsak, euskal kulturaren emandako aurrerapausoak, euskalgintzako elkarteak laguntzea eta euskal komunikabideak sortzea.



ABENDUAK 3 DICIEMBRE

EUSKARARI  
NAZIOARTE  
EGUNA  
DÍA INTERNACIONAL  
DEL EUSKERA





## LEGEAREN ZEHAZTASUNAK

10/1982 legeak euskara eta gaztelaniaren erabilerak arautzen ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Hauetxek dira lege honen artikulua esanguratsuenak:

Legearen **2. artikuluan** esaten da euskara dela Euskal Herriko berezko hizkuntza.

**3. artikuluan**, gaztelaniarekin batera euskara Erkidegoko lurralde osoan ofiziala dela zehazten da.

**4. artikuluan**, hizkuntza dela eta inor baztertuta izan ez dadin botere publikoek neurriak hartuko dituztela dio.


**5. artikuluan** EAEko herritarrei funtsezko hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie, horien artean:

- Autonomia Erkidegoko lurraldean dagoen Administrazio edo erakunde ororekin ahozko edo idatzizko harremana euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea.

- Lanbidean, lanean, politikan eta sindikalgintzan euskaraz aritzeko eskubidea, edota edozein bilkuratan euskaraz aritzeko eskubidea.


Halaber esaten da botere publikoek eskubide horien erabilera bermatuko dutela eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Bestalde, 86/1997 Dekretuak, EAEko herri-administrazioen euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zuen, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeari eta Euskararen Legeari berari segida emanez. Honakoa dago zehaztuta bere 4. atalean: "Euskal herri-administrazioetako hizkuntz normalizazioa prozesua hezurmani dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du".



N  
KO

HIZKUNTZA-GAITASUNA, LURRALDEAREN ARABERA  
EUSKAL HERRIA, 2001 (%)



Unibertsoa: 15 urtetik gorako biztanleria

Iturria: Soziologiaren inkesta 2001. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak

Hala eta guztiz ere, EAEko Euskararen Legean hutsuneak daude: besteren artean, euskararen estatusa bera, izan ere, gaztelania ezagutu beharrekoa da, eta euskara, ez. Horrek funtsezko desberdintasunak ezartzen ditu, eta normalizazio prozesua bal-

dintzatu egiten du. Halaber, araudian esku-bideak ongi formulaturik dauden arren, ez dira praktikan ondo erabili. Hau da, gaztelaniaren eta euskararen arteko berdintasuna formala da, baina ez da berdintasun erreala izatera heldu.

Hala, orain dela 25 urte agindutakoak oraindik bete gabe daude. Hezkuntza, Osakidetzak eta Ertzaintza euskalduntzeko planak garatzeaz hitz egiten zen orduan, baina Osakidetzan eta Ertzaintzan oraindik ez da euskalduntze planik egin. Eta, hain justu, Behatokiak emandako datuei erreparatzen badiegu, herritarrekiko zerbitzurik garrantzizkoenak bermatzen dituzten sailak dira, hain zuzen ere, herritarren kexa gehien jaso dituztenak: Justizia, Osasuna, Lana eta Gizarte Segurantzak, Hezkuntza eta Herri-zaingoa. Aipatzekoa da kexak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa osoan gertatzen direla, euskaldun kopurua altua den udalerrietan nola hain altua ez denetan ere ■

>>> garaia da:

**ESKOLAK**

**EUSKALDUNDU**

**BEHAR**

**DU!**

**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

ehe.euskalherria.org

## IKUSPUNTU KRITIKOA

### EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ


Balorazio ezkorra egiten du EHEk Euskararen legeari buruz. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren hizkuntza eskubideen bermea ekarri beharko lukeen legeak, "urte luzetako zapalketa eta bazterketa" ekarri duela salatu du. EHEk gogoratu du duela 25 urte eman zitzaizkion euskarari estatusa, gaztelaniarekin batera, baina urte luze hauetan guztietan bi hizkuntzen elkarbizitza parekoa izan dela "saldu" nahi izan dutela kritikatu du.

Halaber, EHEk azpimarratu du administrazio ezberdinetatik egiten diren proposamenek ez diotela euskarak eta Euskal Herriak behar duten aldaketari erantzuten. "Zapalketa estrukturala da, eta beraz, aldaketa ere errotikoa izan behar da". Aldaketa hori egungo markoaren eta horren gainean egiten diren legedi eta hizkuntza politikak bertan behera uzteak etorriko dela iritzi dio EHEk. Euskal Herriak, bere osotasunean aldaketa ekarriko duen legedi berria behar duela uste du erakundeak, eta honako bost ezaugarri nagusi izan beharko lituzkeela iritzi dio:

1. Euskara berezko hizkuntza izendatu behar da.
2. Euskarak ofiziala behar du izan Euskal Herri osoan.
3. Euskararen egoera ikusirik, lehenetsutako hizkuntza izan behar da.
4. Euskara euskal herritar guztiek ezagutu behar dute, eta hau hala izan dadin, beharrezko neurriak hartu behar dira.
5. Herritar guztien hizkuntza eskubideak Euskal Herri osoan aitortu behar dira.

KATIXA AGIRRE

***“Liburu bat  
idazten duzu  
eta oso azkar  
diote idazle  
zarela.  
Izatekotan  
ni idazle  
gaia naiz”***



Duela bost bat urte GEU aldizkarian egindako elkarrizketa lehendabizikoa izan zela onartu du Katixak. Garai horretan Ernestina de Champourcin poesia lehiaketa irabazi izanaren harira hitz egin genuen gasteiztarrarekin. Egun ordea, gazteak bere idazteko grinari jarraituz, tokia egin du euskal literaturan. 'Sua falta zaigu' eta 'Paularen seigarren atzamarra' izan dira 2007an kaleratu dituen lanak. X. Igartza Saria eskuratu izanak bere azken ekoizpena, 'Etxetik irten gabe' ipuin bilduma, emango du argitara 2008ko udazkenean.



**Katixa Agirre (Gasteiz, 1980) ikus-entzunezko komunikazio ikasketak gauzatu zituen Leioan. Karrerako azken urtea kanpoan eman zuen Erasmus beka batekin, Ingalaterran hain justu ere. Ostean Madrilen Doktoregoa egin zuen gidoilaritzan.**

**t. josune velez de mendizabal**  
**a. edorta sanz**

## **Nolatan bideratu zenituen zure ikasketak ekoizpen literarioa?**

Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen egia da hasieratik atentzioa eman zidala gidoilaritzak, eta honek idaztearekin duen harremana. Azken finean uztartu egin nituen. Idaztea ariketa bat da eta, bai literaturan, zutabegintzan...

## **Ernestina de Champourcin poesia lehiaketa irabazi zenuen. Izen handiko lehiaketa da. Poesiaren ildotik eman al zenituen literaturan zure lehen urratsak?**

Aurretik beste lehiaketa batzuetara aurkeztuta nengoen. Ipuinak idatzita nituen baita lehiaketa batzuk irabazita ere. Uda batean izan zen, egin nuen eta listo. Orain ipuinekin jarri naiz. Hura kasualitatea izan zen, idatzi eta saria jaso nuen baina ez dut berriro poesiarik idatzi, ez dut nire burua poeta ikusten. Salbuespena izan zen... Pozten naiz saria jaso nuelako, halere. Ernestina de Champourcin sariak, ordea, gogoia eman zidan idazten jarraitzeko.

## **Joan den martxoan 'Sua falta zaigu' (Elkar) kaleratu zenuen. Zure lehendabiziko argitalpena. Zazpi ipuin biltzen dituen liburua, alegia. Beldur al zinen kritikak zure lehendabiziko lana nola baloratuko zuen? Oso erantzun ona jaso duzu...**

Beno esan behar da euskal literaturan oro har oso kritika txarrak ez direla egiten. Badago horrelako tabu bat: ez dugu asko jipoituko idazlea hain literatura txikia den honetan... (barrez dio). Beldurrez? Egia esan ez, asko landu nuen, aurretik ere ipuin asko nituen. Beraz banekien benetan merezi zutela... Agian harrokeria da horrela esatea, esan nahi dudana da gustura nengoela egindakoarekin eta ikusten nuela aurrera ateratzeko gai izango zirela. Eta kritikari dagokionez, ba pozik nago baina batez ere jendearen erantzunarekin. Durangoko Azokan egon naiz eta aukera izan dut jen-



dearekin egoteko. Irakurle Tarteetara ere joaten naiz eta hori da politena, hor ikusten baita benetan irakurri dutela.

## **X. Igartza Saria eskuratu duzu eta ondorioz 'Etxetik irten gabe' izenburuaz ipuin bilduma egiten ari zara. Ipuinak berriro?**

Bai, ipuinak izango dira. Kasu honetan oso pozgarria da beka jaso izana, batez ere orain langabezian nagoelako, kar, kar... (Leioan izan da irakasle ordezkapen bat eginez). Irailean entregatu behar dut lana, eta horretan nabil.

## **Izenburuak hemendik aurrerantzean tokatzen zaizun errealitateari keinua egiten al dio? Etxean idazten burubelari ibiltzea, alegia?**

Beno izan daiteke bai... (Barre egiten du). Konturatu nintzen ipuinak beti gauzatzen zirela etxe baten inguruan, dela etxe bila zoazela, etxe barruko gatazkak... Etxebizitza nik neuk ere buruan izan dudana zerbait izan da azkenaldi honetan, hortaz, bekara-



Aspaldian idazten dut blogean, eta hasi nintzenean jendeak ez zuen egiten, garai horretan ez zen oso ezaguna. Tresna hori existitzen zela jakin nuen eta hasi nintzen frogatzen. Irakurtzen nituen gauzak zintzilikatuz eta. Ostean zituen baliabide ikeretzen hasi eta jendearekin harremanetan egoteko tresna polita ere bazela ikusi nuen, jendearen erantzunak jasotzeko, baita egunkari eta aldizkarian idazten dudana ezagutzera emateko, denek ez baitituzte argitalpen horiek erosten.

### **Zutabeak, blogean, liburuak, ipuinak... Idazteaz asetuta?**

Ez, inondik inora. Behin ofizio apur bat duzunean niri behintzat ez zait ezer kostatzen, gero eta gehiago nahi duzu. Ideia izatea da zailena, baina behin duzula aurrera. Ez nuke galdu nahi idazteko gogo edo nahi hori.

### **Ondorioz, ogibide idazle?**

INEM-eko txartela erakutsiko dizut nahi baduzu (barrez esaten du). Ez, ez dut nire burua idazletzat. Liburu bat idazten duzu eta oso azkar diote idazle zarela. Izatekotan idazle gaia naiz.

### **Eta idazleekin harremana? Gazteak tentuz zaintzen zaituztete?**

Alde batetik bai, baina bestetik ere mesfidantza ikusten da... Ea arreta handia egiten zaien... Denetarik dago.

### **Orain artean euskaraz idatzi duzu beti, beste asmorik?**

Euskaraz aritzen naiz, bi hizkuntzetan karrera bat eramatea zaila baita. Hizkuntzarekin batera estilo bat lortzen baituzu. Noizean behin erdaraz idazten ditut zutabeak nire mutil-lagunak irakur ditzan, besterik ez.

### **Nola dator etorkizuna?**

Idazten jarraituko dut, eta horretan nabil momentuz baina zerbait gehiago ere behar dudala sentitzen dut, jendearekin harremanetan egotea alegia. Bestelako lanak izatea oso garrantzitsua baita idazlearentzat ■

ko proiektua aurkezteko unean, nolabait egitasmo itxiago bat aurkezteagatik, ipuin guztiek komunean zuten hura izenbururako egokia iruditu zitzaidan.

### **Umeekin ere ausartu zara, horra hor 'Paularen seigarren atzamarra' ipuina. Alderik bai haur eta helduen literatura-arten artean?**

Noski aldea dagoela. Helduentzat askoz errazagoa egiten zait; hau baitzen umeentzat idazten nuen lehen aldia. Dena den gero oso gustura geratu nintzen. Obra magikoa da eta ez dut uste dagoenaz baina istorio handiagorik dagoenik. Umeek egiten duten lehen gauza beti da azaleko marrazkian Paulak sei hatz dituen ala ez zenbatu, kar, kar. Orain hasiko naiz ikastetxeetatik bisitan umeekin liburuaz hitz egin ahal izateko, ea ba.

### **Kasu honetan Patxi Gallegoren ilustrazioak daramatza zure liburuak. Nolako elkarlana izan da?**

Mailez ibili ginen biok, marrazkiak bidali

zizkidan eta batekin izan ezik, azalekoa, ez baitzitzaidan egokia iruditu ba, oso ondo ibili ginen. Primeran harrapatu zuen ideia. Aurkezpen egunean elkar ezagutu genuen. Eta oso pozik nago berak egindako lanarekin. Berak oso ondo irakurri zuen eta nik ez nion ezer esan behar izan.

### **Katixa Agirre zutabegilea ere bada Deian eta Gaztezulon. Iritzi askea emateko baimena hortaz, zorionekoa zu...**

(Barre) Beno nahi dudana idazten dut bai, baina politikaz hitz egiteko joerarik ez dut. Gauza batek asko ukitzen nauenean edota kontu pertsonalaz aritzen naiz batik bat. Gaiak libreak dira baina egia da batzuetan ideiak agortzen direla...

### **Blog propioa ere baduzu, 'Gauzez eta azpikeriaz' izenekoa. Azpitoluak honakoa dio berriz, 'Katixa Agirrerren blog kriminala'...**

Kar, kar, ...bai, kriminala zela esan zidan behin blogari batek eta gustatu zitzaidan, pertsona horri keinu bat da besterik ez...

## MALATU taldea



Nahiz eta bi urte eta erdi baino ez dituen, musikaren munduan eskarmentu handiko taldekideek osatzen dute MALATU. Anastua izeneko musika taldetik datoz Malatuko kide gehienak eta guztien artean badaude, Potato, CCP, La Mujer Barbuda, Gasteiz Big Band edo Ruper Ordorikarekin batera ibilitakoak.

## bat-batekotasunaren



mikel garcia eta luisja r. barron

### Kontzertu didaktikoak

Basaurin egin dute azken kontzertu didaktikoa. "Kontzertu formatu berritzailea ere eskaintzen dugu", azaltzen du Mikelek, "Blues-a eta Ragtime-a nola fusionatu ziren azaltzen dugu, jazzaren jatorria baitira", gaineratzen du. Historia azaltzeaz gain, euren abestiak ere aurkezten dituzte ikus-entzuleek musikaren garapena era kronologiko batean kokatu dezaten. Musikaren arloan jakinmina dutenei dago zuzenduta, musika ikasleei, Jazz musikaren zaleei edota 1930. urtetik gaur egunera arte armonia modernoek izandako bilakaeraren inguruan gehiago jakin nahi dutenei.



# konexioa

**t.** ainhoa arriaga

**a.** edorta sanz & arxibo

Alberto de la Casa (baxua), Txefe Ferroni (saxofoia), Iñazio Gabilondo (ahotsa), Laura Ortega (pianoa), Mikel Garcia (gitarra) eta Luisja R. Barronek (perkusioa) osatzen dute Malatu taldea. "Hasteko, lehendik genituen konposizio batzuk hartu genituen eta gero gure abesti berriak egiten hasi ginen", azaltzen digu Mikelek.

Hiru hilabete luze daramatzate euren lehen diskoa izango dena prestatzen eta ilusio handiz, udaberri aldera kaleratuko dela kontatzen digute. "Autoekoizpena da, gu ari gara dena ekoizten eta horrek estudioetako presioak ekiditea dakar", azaltzen digu Luisjak.

Disko honetan, taldearen ezaugarri bereizgarriena den estiloen uztarketa aurkituko dugu. "Bateria ez izateak, nolabait behartzen gaitu eritmo afrikaribearrekin lan egitera", dio Mikelek. Bossa nova, swing-a, rock-a... estilo gehienek ikutua sumatzen da Malaturen musikan.

## “Gure kontzertuen inprobisaketek gure artean komunikazio berezia sorrarazten dute”

Malatu taldeko gitarrajole Mikelekin eta perkusioan aritzen den Luisjarekin izan dugu solasaldia. Taldearen nondik norakoez aritu gara eta hainbat bitxikeriaz jabetzeko aukera ere eman digu elkarrizketak.

### Zer-nolako oztopoak aurkitu dituzue bidean?

Ez dagoela bide asko, hori da oztopo handiena. Ez dago jotzeko leku askorik. Baina beno, oraindik ez digu inork ziria sartu, kar-kar. Musika talde lokalek oso zaila dute bizirauteko. Lokal gutxi daude eta gainera kontzertuak nahiko gaizki ordaintzen dituzte. Guri justu-justu taldeko gastuak kubritzeko ematen digu, baina beno, hor jarraitzen dugu.

### Zergatik Malatu?

Abeslariaren aitona baserriaren izena da Malatu. Aitona, orain dela urtebete hil zen. Berak ikusita gintuen eta oso musikazalea zen. Oso pertsona xeblea zen, eta bere omenez hautatu genuen izena. Bestalde, soinu aldetik ere gustuko dugu Malatu.

### Nolako da Malaturen zuzenekoak?

Jazz asko dago, gure kontzertuak inprobisatuak direlako. Egitura bat daukagu non hitza kantatzen den eta gero bakarrak hasten diren. Inprobisaketa horietan jazzaren lengoaiaren barruan egoten saiatzen gara. Melodia jotzen da eta melodia horren atzetik bakarrak datoz. Hauek beti dira inprobisatuak. Inoiz ez dugu bakar-saio berdina egiten. Nahiko luzeak ateratzen dira horregatik gure kontzertuak. Hala ere, argi duguna da inprobisazioetan jendea ez dugula aspertu behar, hori ere kontuan hartzen dugu ikus-entzulearen arreta mantentzeko. Kontzertuetan asko gozatzen dugu eta gehiena inprobisaketa izateak gure artean komunikazio berezia sortzea eragiten du. Arriskua ere sentiarazten digu eta denon arreta mantentzea lortzen du. Oso konektatuta egon behar gara gure artean, bestela ez du funtzionatzen. Konexio hau publikoak ere sentitzen du, nabaritu egiten da.

### Zertaz hitz egiten dute zuen musikaren letrek?

Oso sentimentalak gara, egunerokotasuneko gaiez eta sentimenduez aritzen gara batez ere. Baina borroka abestiak ere badira. Letrek, garrantzia dute abestietan, baina ez da garrantzitsuena. Alderdi guztien batura da.

### Zeintzuk erronka dituzue aurrera begira?

Momentuz gure diskoa bukatzea, nahiko aurreratua dagoena. Hori egin ostean, Euskal Herri mailan promozio handiagoa egitea dugu pentsatuta, gehiago ezagutarazteko helburuarekin. Aipatzekoa da Topaguneko sarean gaudela eta horri esker, nahikotxotan deitu izan digutela Euskal Herri osotik kontzertuak emateko.

### Hurrengo kontzertua?

Gasteizen bertan, Parralen Urtarrilaren 29an. GEU elkartearen eskutik

## Apinaizko *baskongadoak*

### t. kike fdz. de pinedo

Azken Ohitura-n 'Montaña Alavesa, Comunidades y pastores' izenburupean, J. A. Gonzalez Salazarrek XIX. mendera arte Mendialdearen ekonomiaren oinarri izan diren *komunitate* edo *parzone-rien* berri ematen digu. Artzaintza eta basoen ustiaketa arautzen zuten herrien arteko antolaketa honetan. Antzinako bizimodua, antolaketa, batzar lekuak, toki izenak eta beste batzuk aurki ditzakegu bere dokumentazio ugari eta interesgarrian. Bada tartean orduko hizkuntza errealitatea hobeto ezagutzeko bide ematen digun harribitxi bat. Azal dezagun: Irazagorria komunitateaz ari dela, auzi luze baten berri ematen zaigu. Apinaiz herria bertako jauntxo-familiaren aurkakoa. Antza, herri-basoen jabegoa, agintekeriak eta zerga-presioa zirela medio harremanak gaiztotu eta auzitara jo zuten vallejotarren kontra. Epaiketa hasieran, ordea, arazo bat sortzen da, hizkuntza arazoa alegia. Honela azaltzen du Apinaizko prokuradoreak, P. Herz. de Cecujanok: "suplico a vuestra alteza **porque los mis partes son bascongados** e tienen de hazer sus probanzas con **bascongados** asi en la tierra de Araya como en la jurisdiccion de Vitoria e otras partes **bascongadas** nos mande



nombrar e señalar un **receptor vascongado**". Geroxeago gaineratuz: "pido y suplico a vuestra alteza mande una de dos cosas **o que vaya recetor vascongado** o que el recetor que fuere **que supiera vascuence** tome de su costa **ynterprete** con que pueda tomar los dichos testigos...". Aurrerago jauntxoaren prokuradoreak: "**tenia necesidad de presentar ciertos testigos vascongados que no sabian romance ...e que avia tomado por ynterprete** a Ochoa Martinez clerigo vesino de Virgara la Mayor...". /Testigos/: Juan Garcia vecino de Vergara la Mayor **sabia entender romance pero no responder** (...). Juan Lopez de Langariga de Angaria... **que no sabia romance** (...). Pedro Coleta e Mincho vecinos de Apellaniz dixieron **que no sabian responder romance...**". Auzi honek ez du inor gustura utziko. Baina balio handikoa da guretzat. Gogora dezagun garai hartan *bascongado* euskaradunaren sinonimo zela, eta beraz, aipu eder hauek Apinaiz eta Arraian euskara baino ez zekiten herritarrak ohikoak zirela erakusten digutela. Lautada edo Arana bailarako nekazarien euskal elebakartasuna frogatzen duten antzeko agiriak eza-gunak ziren. Baina orain agiri berri honekin Mendialdeko zonalde batzuetan hizkuntza egoera antzekoa zelako ideia indartzen da.







m. iñigo sarasola



### Urte berriaren albisteak!

**t. erlantz** urtasun antzako historialaria

Eguberri, Eguzki berria. Aro berria. Milaka urte gibelerat, atzera. Arabako biztanleak euskaraz bizi ziren era naturalean, eta gure arbasoen artean batzuek bazekiten euskaraz irakurtzen eta idazten, hemengo sartaldeko Iruña lekuko. Hor, gutienez, egungo Kantabria, Burgos eta Errioxako lurralde zabalak, baita Araba eta Bizkaiko ibarretan ere. Ezin sinestu, ezin irudikatu erabat erdaldundurik diren alderdian gaztelania arrotza zen milurtetako epe hura. Horren amaieran, oraindik ere, arabarrok nafartzat hartzen genuen geure burua...

Zaharrak berri. Aspaldidanik hasia, XVIII. mendean Araba erdia euskal kulturatik at geratzen ari zen abiadura bizian, XIX. mendean mahastia baino gorostia genuen babeslekua, eta euskal zibilizazioak, bere osotasunean harturik, Mediterraneoan galdu zuen, baserrietan izkutuko kabiaren bilatzeko. Hots, XX. mendean, han ere, frankotan, erdara jaun eta jabe ibiltzeko.

Urte berri, urte zahar, Martzelino galtzazar, urte zahar, urte berri, Martzelino galtzaberri. Frankismoaren amaieran ikastolak antolatu eta ondorengo hamarkadetan euskararen ezagutza nahiz erabilpena etengabe hazi da Araban. Baina eta hemen, nagusiki, eta milaka euskaldunberri zoragarriez aparte, umeen lepo jarri da euskararen berreskurena, gure etorkizunaren itxaropena tikitoen kemenaren arabera. Haiendako, ageri da, gehiegi tumatxa.

Eguberri on, urteberri on. 2007ko abendua. Azken ikerketa soziolinguistikoen arabera euskararen erabilpena moteldu baino, jaisten ari da Euskal Herriko mendebaldean. Zein modernoak bilakatzen ari garen! Albiste ikaragarri hau ez da inoiz jaso Francoren garaitik honat. Beraz, 2008: Gasteiz da gakoa. "Geu Gasteiz" bultzatu, irakurle!

#### "Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XX)

Nik uste dut hamaika aldiz irakurri dudala "Retana". Horrela idatzirik, han hemenka, liburu honetan, bertze horretan, ah! Eta hartan ere bai, jakina. Izan ere, beti pentsatu baitut, edota gure hiriburuko historikoan, Iruñean ziotenez, beti oldoztu baitut "Retana" hitzak, izenak, musika berezia, doinu ederra zuela.

952. urtean, haatik, "Erentana" deitu zioten. Kontxo, bai, antzekoa bada, baina gauza bera ez dela ezin ukatu, zer arraio. Zer erranik ez 1025eko agiri batean "Erretanna" harrigarriak agurtzen bagaitu.

Eta, kasu, zeren eta XIII. mende zaharrean "Retainna" ere isuri baitzuten. Ai ene, zer dio Euskaltzaindiak? "Erretana". Begira itzazue errepedeetako kartelak... Horie esker ere liburu mardula idazten ahal baita izen hartaz!

# mundua lo dagoen bitartean

abenduak 3.  
euskararen eguna  
principal antzokian  
20:30  
doan  
(sarrerak azaroren 19tik  
aurrera araba kulturalean)



gidoia&zuzendaritza:  
patxi zubizarreta

aktoreak:  
ibán garate, mikel losada,  
maria urriarte, felipe barandiaran

parte-hartze berezia:  
nerea garmendia, agurne anasagasti, arie muñoz

planoan:  
joserra senperena



ongi etorri gaueko hitzen hitzordura, ongi etorri mundua lo dagoen bitartean irrati saiora, sentimendu, irrika eta desioen ordura. goizaldeko ordu bata eta hogeita hamazazpi minutu diren honetan, mikrofonoak zabalik dituzu...

*abenduak 3, gasteiz. principal antzokia leporaino*

## eskerrik asko!



a. raul bogajo

## literatura dosi txikitán

### Zutabeak eta adreiluak

mikel ayerbe



Zutabeek oinarri bat behar dute. Bestela ez dira zutik mantentzen. Idazten diren ideiek adreilu izan behar dute: eraikitzeko edo, besterik ezean, babesteko.

Fikzioak ere errealitytetik babesteko balio omen du.

Niri, behintzat, balio dit. Agian, errealityteari bizkarra emateak ez du zentzurik, eta finean, begi aurrean duena ikusi nahi ez duen koldar bat naiz. Egia gezurrez mozorrotzen saiatzen naizelako. Baina ez dakit nork esan zuen, ongi eraikitako gezurrek egia hobeto ulertzen lagun dezaketela. Agian, literatura ihes eginez bertan gelditzeko modu bat delako. Dakizuen bezala, literatura ez delako ihesbide erraza.

Zutabe honen teilatuan jartzen duen bezala, literatura dosi txikitán eskaini nahi dizuet.

Betekadak eta gaindosiak ez ditugulako gus-tuko, eta are gutxiago literaturaz ari garenean. Hilero mokadu bat eta basoerdi bat. Literaturaz, noski.

Baina barkatuko didazue lehenengo zutabe honetako adreilua norbaiti burutik behera emateko erabiltzen badut: Jabego Intelektualaren Legearen kontra egiteko, hain zuzen. Izan ere, liburutegi publikoetako liburu bakoitza ateratzeagatik 0'20 euro ordaindu behar izatea gainera erortzeaz dugun legea da. Hori bai, mailegua kanon hitzaz bataiatu dute, egile eskubideen alde ari baitira berriro ere. Kasurik onenean, litekeena da gastu horri liburutegiek egitea aurre. Baina argi dagoena zera da (eta saretik bildu ditut hitzok): "Kanon hori ezartzeko modua erabakitzeaz dagoen arren, seguru asko liburutegiek liburuak erosteko duten aurrekontuan eragina izango duela, eta, ondorioz, baita fondoan gutxitzea eta erabil-tzaileen kaltea ekarriko ere".

Eta gaurko dosia amaitzeko, beste adreilu bat erantsi nahi dut lege honen aurka ari diren alde. Liburutegietako mailegu ordainduari ez bezalako ekimenak ere oinarri sendoak dituelako ■


**geusex@emaize.com**

**Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakinminik al duzu?**

**Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruan arlo desberdinei buruz galde diezagukezu:**

- Sexu-identitatea edo desioaren orientazioa
- Sexualitatearen bizipenak
- Erotika
- Bikotea

**Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak: [geusex@emaize.com](mailto:geusex@emaize.com)**



## EMAIZE SEXOLOGIA ZENTROA Gizon eta Emakumeentzako arreta

bueno monreal k. 1, behea. 01001 vitoria-gasteiz  
tfn 945 26 58 96. [www.emaize.com](http://www.emaize.com)

Emaize 1994an hasi zen lanean sexologiaren esparruan.

Honako arloetan lan egiten dugu:

- Heziketa sexuala -Aholkularitza sexuala -Terapia sexuala
- Formazioa -Ikerketa arloa

Profesional guztiak AEPSeko (Asociación Estatal de Profesionales de la Sexología) kide gara. Bertan lan egiten dugun pertsona guztiok giza-zientzietan lizentziadunak gara, sexologian goi mailako formazioarekin.

### NOLA ULERTZEN DUGU ESKU-HARTZE SEXOLOGIKOA?

Sexudunak izate hutsagatik sexua (emakume ala gizona izatea) eta sexualitatea (gizon ala emakume gisa bizitzeko era) zaindu, landu eta hezi behar ditugun baloreak dira.

Gure kulturaren sexu-ereduak erotikaren bizi-pena genitaletan eta koitoan zentratzen du, sexuen arteko harremanak norgehiagoka bilakatzeko eta sexu-identitatea eta gorputzaren bizi-pena zailtzen ditu.

Horregatik eta sexologiaren hiru arlo nagusiak (sexu-hezkuntza, sexu-aholkularitza eta terapia) lantzen dituen talde profesionala garenez, sexualitateari eta giza-ki sexu-izaerari dagokion erantzun integrala eta profesionala eskaintzen dugu ■



## errezeta

### ARROZESNEA (6-7 errazio)

- 1 l. esne
- 150 g. azukre
- 100 g. arroz (ur berotan beratua)
- Limoi azala
- Kanela-zotza eta -hautsa



### diocesanasmendizorrotza ostalaritza eskola

• Esnea egosten jarri kanela-zotza (lotuta) eta limoi azalarekin. Irakiten hastean, arroza botatzen da, goilara batekin eraginez, arroza ongi egiten uzten. 10-15 minuturen ostean (behin arroza egosita), azukrea gehitzen da eraginez, 3 minutuz irakiten utziz.

• Txokolatezko arroz esnea egitekotan, +-30 g. kakao erantsi, esandako azukrearekin batera.

• 24 orduz heltzen utzi hozkailuan, nahi dugun ehundura hartu artean.

• Arroza lehenago egostea nahi izanez gero ur berotan 5 minutuz beratzen utzi, era honetan almidoia ere kentzen delarik. Ondoren, xukatu eta esandako urratsei jarraitu.

• Behin arroza zerbitzatuko den ontzian edo ontzietan dagoela, kanela-hautsa hautsezatu.

• Hozkailuan 3-4 egun. Ezin da jelatu ■



# HARRA BA

## Errioxar ardo banatzailea

Bodega hauetako banatzaile zuzena:

**Hnos. Frias**  
(Villabuena-Eskuernaga)

**Heredad de Aduna**  
(Samaniego)

**Valserrano**  
(Villabuena-Eskuernaga)

**Garcia de Olano**  
(Paganos)

Urteko ardoa, ondua,  
erreserbakoa, zuria

+

**Zelaia sagardoa**  
(Hernani)

**Mahatxuri txakolina**  
(Amurrio)

Aiztogile kalea (kutzileria), 58 - 1.  
01001-Gasteiz  
**606291842**

